

## **13. atala.**

### **Programazio-saila irratan eta telebistan**

Telebista zein irrati batek lortu nahi dituen helburuen arabera aireratu-tuko dituen saioak planifikatu, ekoitzi/erosi, antolatu, programazio-taulan kokatu, audientzien zein iragarleen erantzuna neurtu, emisioen jarraipena egin eta promozioa burutzea izango dira, beste batzuen artean, programazio-sailak aurrera atera beharko dituen lanak. Baina sail hori, bere garrantzian, ez dago gainontzekoetatik aparte, eta erlazio estuak ditu erabakiorrak diren beste batzuekin.

Horrez gain, programaziogintza arteaz eta zientziaz zipriztinduriko profesioa dela esan ohi da. Agian horregatik, programazio-sailean aritzen direnen berezitasun pertsonalak eta betebeharrak profesionalak oso markatuak izaten dira.

### **13. ATALA: PROGRAMAZIO-SAILA IRRATIAN ETA TELEBISTAN**

1. Antena-saila eta irrati-telebistaren barne-egituraren gainontzekoak
  - Irrati-telebistaren Zuzendaritza Orokorra
  - Telebistako Zuzendaritza
  - Telebistako Antena-Zuzendaritza
    - Barne-produkzioaren saila
    - Erosketa-saila
    - Emisio eta Kontrol Saila
  - Irratiko Zuzendaritza
  - Emisoraren Zuzendaritza
2. Antena-Zuzendariaren perfila eta berezitasunak.
  - Jakituriak
  - Trebezia
3. Bibliografia
4. Gehigarriak
  - Intereseko webguneak
  - Atalaren bibliografia

## ***1. ANTENA-SAILA ETA IRRATI-TELEBISTEN BARNE-EGITURAREN GAINONTZEKOAK***

Irrati-telebisten barruko antolaketa eta sail desberdinen arteko erlazioa nahiko antzerakoa izaten da, toki gehienetan<sup>1</sup>. Agian, “tamainak” markatzen du desberdintasuna. Hau da, kanalak edo emisorak duen konplexutasunak, besteak beste, zenbateko emisio-orduak, edukien berezitasun-maila, barne-produkzioarako duen ekoizpen-ahalmena eta langile-kopuruak zeresan handia du bakoitzaren funtzioak eta ardurak erabakitzerakoan.

Organigramaren azalpena egiterakoan, lehenik eta behin, katearen edo en-tearen goi-karguak ageri dira, eta zuzendari orokorra eta telebistarena/irratia-arena gero. Bi maila horiek gainbegiratuko ditugu, gero, Antena-Zuzendaritzan bete betean murgiltzeko (Walker eta Ferguson, 1998). Bi goi-arduradun horien definizioa egiterakoan, eta gainontzekoetan ere erreferentzia zuzen eta hurbil modura, Euskal Irrati-Telebista hartu dugu, nahiz eta gero guk egokitzapen batzuk egin<sup>2</sup>.

### ***1.1. Irrati-telebistaren Zuzendaritza Orokorra***

Ente publikoetan bereziki, Zuzendaritza Orokorra taldearen ordezkari gorena da eta, nola ez, sail desberdinen koordinazioaren ardura osoa bere gain hartzen du. Bereziki hauek izaten dira bere zereginak: estrategien definizioa, sail desberdinen helburuak markatzea, sailen arteko erlazioa eta sinergiak bultzatzea eta aurrekontuak prestatzea.

Zuzendari Orokorrak bere menpe dituen sailetako zuzendariak izendatuko ditu, eta bereziki irratikoa zein telebistakoa.

EITBren eta Tele 5ren kasuetan, ondoko organigrametan ikus daitekeen bezala, Zuzendari Orokorraren zerbitzura dauden kabinete eta batzordeen artean, audientzia-ikerketa, barne- zein kanpo-komunikazioa eta promozioa eta irudia lantzen dituztenak aipatuko ditugu, beste batzuen artean.

### ***1.2. Telebistako Zuzendaritza***

Zuzendari Orokorrarekin batera, telebista-katearen estrategiak eta politikak definitzea izango ditu betebeharrak garrantzitsuenak, beti ere epe ertain zein luzera

---


1. Estatu frantziarreko telebista-kanal desberdinen programaziogintza-sailaren organigrama eta bertako profesionalen zereginaz gehiago jakiteko interesgarria da Dossiers de l'audiovisuel (1992) aldizkariak 41. zenbakian, “Programmer: un art et une technique” izeneko artikulu-bilduma.

2. Kanalaren barne-egituraketa eta, bereziki, programazio sailari dagokionean, Eusko Jaurlaritza (1992): Euskal Telebista. Informe, Eusko Jaurlaritza, Kultura-saila (mimeografiatua) txostena erabili dugu.


begira. Gastuen zehaztapena eta kontrola eta, kudeatzailearekin (gerentearekin) erlazioan, dirutza horren urtez urteko banaketa burutzea izango da bere ardura. Programazioaren eta aurrekontuaren arteko orekaz informatuko du Zuzendari Orokorra. Beste telebista-talde batzuekin harremanak egitea eta mantentzea bere lanen artean dago.

ETBren kasuan gainera, telebistaren zuzendariaren menpe, bete-betean, Programazio- eta Programa-Zuzendaria dago.


**EITBREN ORGANIGRAMA**



TELE 5EN ORGANIGRAMA



**TELEBISTAKO PROGRAMAZIO-SAILA**



### 1.3. Telebistako Antena-Zuzendaritza

Programazio-Sailaren arduradun nagusia denak izen desberdinak hartu izan ditu, baina, azken denboraldian, Antena Zuzendaria (frantsesezko *directeur de l'antenne*, ingelesezko *On-air director* ala gaztelaniazko *director de antena*) da nagusitu dena.

Contreras-ek dioenez, “Antena-zuzendariaren titulupean dago telebista ente batek emititzen duen guztiaren arduradun profesionala, osagarri formalari zein mamiari, (...) edukiari zein edukinari dagokionez (Contreras eta Palacio, 2001: 149).

Programazioaren arduradun nagusienaren funtzioen artean daude, besteak beste:

- programazio-taula planifikatzea (epe labur, ertain zein luzera) eta edukiei zein kostuei dagozkein erabakiak hartzea;
- programez hornitzea, bai kanpoan erositakoak, zein barne-produkzioak koordinatuz;
- emisioa zuzentzea eta kontrolatzea.

Gainera, programazioaren jarraipena egin beharko du, audientzia-maila, kalitatea eta kostua ere neurtuz. Antena-Zuzendariak bere menpe dituen sailen koordinazioa burutu beharko du; hau da, ETBren kasuan: Miramongo barne-produkzioaren zentrua, kanpo-produkzioa, artxibategia, emisio eta kontrola eta albistegi- eta kirol-saioretako esparruak.

Ondoren ikusiko ditugu Antena-Zuzendariaren aginduetara dauden beste azpisail batzuk eta berorien eginbeharrak.

Tokian tokiko beharrei erantzunez, Antena-Sailaren baitan, sarritan programazio-taula eraikitzeaz arduratzen den pertsonala egoten da. Beste kasu batzuetan, aldiz, Programazio-Zuzendariak bereganatzen du zeregin hori.

#### A. Barne-produkzioaren saila

Antena-Zuzendariaren ardurapean dago telebista-kanalak berak burutzen dituen saioen zuzendaria izango den Barne-produkziokoa (Programa-Zuzendaria izenez ere ezaguna da). Donostiako Miramon auzunean kokatuta dagoen barne-produkzioaren zentruak erakartzen du ETBren barruan ekoiztako programa gehienak (egunerokoak ez direnak eta albiste-zerbitzuekin erlasionaturik ez daudenak bereziki). Horrek esan nahi du sail honen arduren artean daudela “etxe barruan” eginiko programa horien edukiak eta kostuak markatzea eta kontrolatzea. Horrekin batera, ekoizpen horiek egin ahal izateko beharrezkoak dituen medio teknikoan, pertsonalen zein finantzarioen ardura izango du.



## **B. Erosketa-saila**

Programazioa osatzeko erosi beharko diren programak zeintzuk izango diren definitu eta horretarako markaturiko aurrekontuaren kontrola egitea izango da Erosketa-sailaren lanik handiena.

## **C. Emisio- eta Kontrol-Saila**

Programazio-taulan zehazten diren programak eta ordutegiak bete daitezela eta legediak zein publizitate-kontratuak errespetatzen direla zainduko duen saila dugu hau. Gainera, emisioetan kokatzen diren saioren jarraipena eta emisioen kontrola egiten da (pelikulen sailkapena, barne/kanpo-produkzioaren ehunekoak, publizitatearen arautegia, programa bakoitzaren emisio-kopuruaren kontrola, etab.). Gaur egun, sail honen lan mekanikoaren zatirik handiena informatizatuta eta errobotizatuta dago.

### ***1.4. Irratiko Zuzendaritza***

Telebistaren Zuzendariari buruzkoan ikusi dugun modura, Irratiko Zuzendaritzaren eginbeharrekoen artean daude emisoren helburu estrategikoak eta horren barruan taktikoak definitzea eta aurrera ateratzea. Horretarako epeak eta medioak markatu beharko ditu. Aurrekontuak ezartzen dituen mugen barruan emisora bakoitzaren kopurua definitu eta eskaintzaren nondik norakoak markatuko ditu. EITBren kasuan bezala, emisora bat baino gehiago daudenean, bakoitzaren berezitasuna eta programazioa definituko ditu, eta guztien arteko koordinazio-lana burutuko.

### ***1.5. Emisoraren Zuzendaritza***


Lehen aipatu dugun modura, emisora bakoitzak dituen giza baliabideak eta aurrekontuak asko baldintzatzen du bakoitzaren ardurak eta betebeharrak. Gure inguruko irratietan, esaterako, irradi bakoitzeko zuzendariak programazioaren ardura osoa hartzen du eta, kasuan-kasu, bere ondoko bat izango du lan horretan espezializatuko dena.

Orokorrean, Irrati bakoitzeko Zuzendaritzaren menpe hiru sail izaten dira: edukiekin zerikusia duena, emisioen alderdi produktiboan zentratuko dena eta alderdi teknikoa zainduko duena.

Lehenari dagokionez, zuzendariak berak egiten ez duenetan, Edukietako Koordinatzailea egoten da, azpisail desberdinetako profesionalen koordinazio-lana egingo duena.

Bi ardura-multzo defini daitezke programei dagokionez: egunerokoak, albisteak edo kirolak eta, bigarrenik, gainontzekoak. Bakoitzean kokatzen da arduradun bat, eta berak egingo ditu programa berrietarako proposamenak eta une bakoitzean

antenan direnen kudeaketa (pertsonekua, aurrekontuarena eta edukiena). Horieta-riko programa bakoitzak bere arduraduna izango du, baina alorburuaren esanetara.



## 2. ANTENA-ZUZENDARIAREN PERFILA ETA BEREZITASUNAK

McCavitt-en eta Pringle-n (1986) esanetan, ugari dira maila pertsonalean eta profesionalean Programazio-Zuzendariak izan behar dituen berezitasunak. Guk autore horiek aipaturikoak bi multzotan pilatu ditugu: jakituriak eta trebeziak.

### 2.1. Jakituriak

- Herria: populazioa, berezitasun sozialak, politikoak, demografikoak, kulturak, aisialdiaren erabilera, hedabide eta bereziki telebistaren/irratien kontsumoaren nondik norakoak, pertzeptzioak, etab.
- Ikus-entzunezko merkatua: barne- zein kanpo-produkzioetarako eta erosketetarako iturriak.
- Programazioa: interesgarria egiteko klabeak, baita jendea erakartzeko eta fidelizatzeko programazio-teknikak.
- Konpetentzia: gainontzeko kanalek egin dituztenak, gaur egun garatzen dituztenak eta etorkizunean aplikatu ditzaketen taktikak jakitea, arrakasta eta porrotak non/nola lortu duten jakiteko.
- Kanalaren jabetza eta ildo ideologikoa: sorrera-legea, helburuak, eta bereziki programazioari buruzko irizpideak.
- Lan-taldea: sailean lanean ari direnak, bakoitzaren eginkizuna. Inguruko sailkideekin harreman normalduak.
- Produkzio-prozedurak: barneko zein kanpoko produkzio-lanen mekanika, epeak, kostuak eta behar izaten den jendea zelakoa eta zenbatekoa den.
- Aurrekontua: kopuru osoa, inbertsioen eta irabazien epeak
- Ikerketa: teknika kualitatiboen zein koantitatiboen bidez eskuratutako datuak lortu, irakurri eta erabili.
- Ikus-entzunezko industria: programazioan eta emisioan nazioartean aplikatzen diren garapen teknologikoak, produktiboak eta programazioarekin zerikusia daukatenak.
- Agintean dauden legediak eta arautegiak.

### 2.2. Trebeziak

- **Trebezia profesionalak**
  - Programa-proiektuak garatzeko.
  - Produktora lokalei zein kanpokoei programak erosteko.
  - Kanalaren estrategien arabera programazio-parrilak zehazteko.

- Kanalak edukiei buruz markatuak dituen estandarrak garatzeko eta betearazteko
- Produktora lokalek zein bestelakoek aurkeztutako programa-proiektuak aztertzeke eta ebaluatzeke.
- Zuzendari orokorrek batera, programa-hornitzaile, gidoilari, lizentzia jabeak, produkzio-enpresa, banatzaile eta abarrekin kontratuak negoziatzeko.
- Audientzia-ikerketak planifikatzeko eta emaitzak aztertzeke.

- **Trebezia pertsonalak**

- Sail berekoekin zein ingurukoetakoekin eta erlazionaturiko enpresetako ordezkariekin eta langileekin harremanak modu positiboan mantentzeke.
- Programazioak eta promozioak garatzeko eta martxan jartzeko kreatibitatea garatzeko.
- Jendearen gustuetara eta ohituretara, baita programazio-tendentzia berrietara eta aldaketa teknologikoetara egokitzeko ahalmena.
- Harreman pertsonaletan irekia eta atsegina izatea.
- Programazio-sailean bertan eta telebistatik kanpo ere programazioak sortzen dituen erreakzioetara irekita egotea.
- Kreatibitateaz, informazio-zerbitzuez eta salmentaz arduratzen den pertsonen ekarrietara irekita egoteke.

- **Trebezia administratiboak**

- Sailean ari den langileriaren lan-harremanak antolatzeko eta beren lana eta soldata gainbegiratzeko.
- Departamentuaren aurrekontua planifikatzeko eta gestionatzeko: soldatak, programen erosketak, lizentzien eta eskubideen ordainketak, ekipamendu-erosketak, bidaiak, etab.
- Bere menpe dituen lanaren jarraipena egiteko, emitituriko programena eta aurrera atera diren promozioena.
- Sailean bertan buruturikoak eta ingurukoekin erlazionaturiko lanen koordinaketa egiteko.
- Hornitzaileekin eta berorien enpresekin lotura zuzena mantentzeke.

### 3. BIBLIOGRAFIA

- Contreras, J. M. eta Palacio, M. (2001): *La programación televisiva*, Síntesis, Madril.
- Cortés, J. Á. (1999): *La estrategia de la seducción*, Eunsa, Iruñea.
- Dossiers de l'audiovisuel (1992): "'Programmer: un art et une technique" izeneko artikulu-bilduma, 41, 29-44.
- Eusko Jaurlaritzza (1992): *Euskal Telebista. Informe*, Eusko Jaurlaritzza, Kultura-saila. [Mimeografiatua].
- McCavitt, W. E. eta Pringle, K. (1986): *Electronic Media Managemet*, Focal Press, Boston.
- Walker, J. R. eta Ferguson, D. A. (1998): *The Broadcast Television Industry*, Allyn and Bacon, Boston.